

DEMENTZIADUN PERTSONEI ZUZENDURIKO INGURUNE INTEGRATZAILEAK: 1. JARDUNALDIA

1ª JORNADA SOBRE ENTORNOS
INTEGRADORES PARA PERSONAS CON
DEMENCIA

2018 / APIRILA / 20
MIRAMAR JAUREGIA, DONOSTIA

20 / ABRIL / 2018
PALACIO MIRAMAR, DONOSTIA



“DONOSTIA 2018 AGIRIA. DEMENTZIAK ETA INGURUNEAK”

Munduan, gaur egun, 46 milioi pertsonak daukate diagnostikatuta dementzia; beraz, aurreikusita dago 2030erako 76 milioi izango direla, eta 2050erako, 135 milioi. Aurreikusita dago, halaber, 4 segundoko dementzia kasu bat diagnostikatzen dela, eta horietatik % 70, hain zuzen, Alzheimerren gaixotasun kasuak direla.

Azken hamarkadetan mendebaldeko gizarteek izan dituzten hamaikatxo aldaketen baitan (inbertsio demografikoa, familia egituraren eraldaketa, emakumearen rol berria gizartean, teknologia berrien agerpena, etab.), garrantzi handia du adineko pertsonak zahartzean izaten diren lehentasunen aldaketak.

Dauden arreta erduetan geroz eta gehiago onartzen da pertsonak bizi diren inguruneen diseinuak eragin nabarmena duela haien bizi kalitatean eta gaixotasunaren garapenean edo gaixotasun horri aurre egiteko moduan.

Horregatik, pertsona bat bizi den ingurunea funtsezko baliabidea da, eta ez soilik alderdi fisikoari dagokionez, baizik eta bizi den espazioarekin berarekin, hurbileko ingurunearekin, bizilagunekin eta auzoarekin garatutako lotura emozionalagatik, eta baita oro har munduarekin daukan loturagatik ere.

Bizitzeko espazio horien garrantzia, horrenbestez, alderdi saihestezina da laguntzarako eta bizikidetzarako aukerarik onena proposatzean; betiere, pertsonen premiak eta lehentasunak errespetatuz.

Proposamen hori baliagarria da oro har, baina berebiziko garrantzia hartzen du dementziei buruz ari garenean. Hala, ingurune terapeutikoen diseinua geroz eta gehiago txertatzen ari da ikuspegi ez-farmakologikoen baitan, dementziek pertsonen gaitasunetan izaten dituzten ondorioak minimizatzeke: dementzia duten pertsonentzat espezifikoki diseinatutako ingurune batek pertsona horien gaitasunen erabilera indartu edo biziagotu dezake. Horri esker, gaitasunei eutsi ahal izango zaie, horiek galtzea motelduko da, eta galtzen doazen gaitasunak ordezkatzeko joango dira.

DEMENTZIADUN PERTSONEI ZUZENDURIKO INGURUNE INTEGRATZAILEAK: 1. JARDUNALDIA

1ª JORNADA SOBRE ENTORNOS
INTEGRADORES PARA PERSONAS CON
DEMENCIA

2018 / APIRILA / 20
MIRAMAR JAUREGIA, DONOSTIA

20 / ABRIL / 2018
PALACIO MIRAMAR, DONOSTIA



Bertan bizi edo/eta berori erabiltzen duten pertsonen premia espezifikoei erantzuteko behar bezala pentsatu, diseinatu eta egikaritutako ingurune bat oso tresna baliagarria izan liteke demenziekin lotutako sintomak murrizteko; besteak beste, nora ezean ibiltzea, nahasmendua, asaldura, gizarte uzurtasuna... Pertsona baten gaitasuna zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta handiagoa da inguruneak bere gaitasunetan duen eragina.

Ingurune fisikoak berebiziko garrantzia dauka mendeko pertsonengan, eta narriadura kognitiboa dutenengan. Beharrezkoa da ahalik eta autonomia eta gizarteratze handiena eta ongizate fisiko zein psikologikoa sustatuko duten eta pertsonen gaitasunak maximizatuko dituzten inguruneak diseinatzea; esan nahi baita, ingurune erraztaileak eta gizarteratzaileak diseinatzea.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa izango da honako hauetan sakontzea:

- Zeinahi inguruneraren diseinuaren eta pertsonen ongizate subjektiboaren artean dagoen harreman estua eta ikuspegi orok sor ditzakeen ondorio positiboak zein negatiboak zabaltzea.
- Dementia duten pertsonen premiei erantzungo dien ingurune bat diseinatzean oinarritzekoak diren alderdiei buruzko ezagutzan aurrerapausoak emateko oinarriak finkatzea, euren autonomia eta gaitasunak indartzeko.
- Inguruneei eta horiek pertsonengan duten zuzeneko eraginari buruzko ikuspegi hori defendatzea, pertsona horien bizi kalitatea eta autonomia bultzatzeko oinarritzekoak gisa. Hala, espazioetako ingurunea egokitzearenak pertsonen arretarako prozesuaren parte izan behar du; bereziki, dementia duten pertsonen arretarako, euren premiei erantzuteko eta euren bizi kalitatea hobetzeko.
- Zenbait ingurune faktore zehatz beteko direla bermatu beharko da, dementia duten pertsonentzat ingurune bat diseinatzean. Faktore horiek honela labur ditzakegu:
 - Giza eskala eta etxeko giroa.
 - Pertsonalizazioa eta familia sentipena.
 - Gizarte elkarreragina sustatzea.
 - Pribatutasuna eta kontrol pertsonala ahalbidetzea.
 - Konfiantza eta segurtasun sentipena ematea.
 - Orientabidea maximizatzea, nola espazioari dagokiona, hala denborari dagokiona.
 - Zentzumenen biziagotze orekatua bultzatzea.
 - Nora ezean ibiltzeko bidezidorrak aurreikustea.
 - Pertsonen trebetasun funtzionalak babestea.

DEMENTZIADUN PERTSONEI ZUZENDURIKO INGURUNE INTEGRATZAILEAK: 1. JARDUNALDIA

1ª JORNADA SOBRE ENTORNOS
INTEGRADORES PARA PERSONAS CON
DEMENCIA

2018 / APIRILA / 20
MIRAMAR JAUREGIA, DONOSTIA

20 / ABRIL / 2018
PALACIO MIRAMAR, DONOSTIA



- Berrikuntza bizkortzea eta sustatzea, giro horretan gizarte bilakaeraren funtsezko elementu gisa duen ebidentzian oinarrituta.
- Ideien eta ezagutzen trukea eta elkarrekiko aberastasuna bultzatzea, testuinguruaren ulermena eta konektibitatea hobetzeko, etab. Zeharkakotasuna izango da, gainera, oinarritzko ardatza.
- Ingurune kontzeptua tratamendu ez-farmakologikoen baitan txertatzeko prozesuan aurrerapausoak ematea, demenziek pertsonengan izaten dituzten ondorioak minimizatzen.
- Dementia duten pertsonentzako diseinuarekin eta ingurune gerontologikoarekin lotutako prestakuntza eta ikerketa ildo bat sortzea, ingurune terapeutiko bat finkatuko duten alderdi giltzarrien aplikazioan aurrerapausoak eman ahal izateko.
- Ingurune gaitan organo aholku-emaila iraunkor bat eratzea, non bilduko diren administrazio publikoa, erakunde pribatuak, gizarte erakundeak eta gizartea, oro har. Organo hori diziplina anitzekoa eta belaunaldi artekoa izango da, eta gai horri buruzko behatoki lanak egingo ditu.
- Arestian aipatutako puntuak bilduko dituen estrategia bat definitzea, pertsonen premiei erantzun errealak emateko eta jardunbide esparru bat finkatzeko, eta, hala, erronka honetarako irtenbideak ezagutzeko eta lortzeko prozesuan aurrerapausoak ematen lagunduko diguten politikak eta ekintzak ezartzeko.

Donostian, 2018ko apirilaren 20an.